



TOLOSAKO  
UDALA

## ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN LOGOTIPOA DISEINATZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Tolosako Udalak Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu du, honako oinarri hauen arabera:

### LEHIAKETAREN OINARRIAK

#### 1.- LEHIAKETAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da zehaztea Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen logotipoa eta nortasun kolektiboa<sup>1</sup> hautatzeko lehiaketaren baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura.

#### 2. – PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa hau da Tolosaldean bizi diren edo Tolosaldean jaio baina gaur egun beste bizileku bat duten 16 urtetik gorako emakumeentzat.

#### 3.- GAIA

Logotipoa sortzeko, kontuan hartu beharko da etxearen proiektuan bertan jasotakoa, zeina partaidetza-prozesuan egin baitzen:

Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea Tolosaldeko talde feministek eta emakume taldeek sortutako eta garatutako proiektua izan da.

## BASES DEL CONCURSO PARA EL DISEÑO DEL LOGOTIPO DE LA CASA DE LAS MUJERES ANDRAGORA DE TOLOSALDEA

El Ayuntamiento de Tolosa convoca el concurso para el diseño del logotipo de la Casa de las Mujeres Andragora de Tolosaldea, de acuerdo con las siguientes bases.

### BASES DEL CONCURSO

#### 1.- OBJETO DEL CONCURSO

El objeto de las presentes bases es definir las condiciones y el procedimiento a seguir en el concurso para seleccionar el logotipo e identidad colectiva<sup>1</sup> de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea.

#### 2.- PARTICIPANTES

Este concurso está dirigido a que participen las mujeres mayores de 16 años que residan en Tolosaldea, o que habiendo nacido en Tolosaldea, actualmente tengan otro lugar de residencia.

#### 3.- TEMA

Para la creación del logotipo, se deberá tener en cuenta lo recogido en el propio proyecto de la Casa, elaborado en el proceso de participación:

La Casa de las Mujeres Andragora de Tolosaldea ha sido un proyecto creado y desarrollado por los grupos feministas y los grupos de mujeres de la Tolosaldea.

---

<sup>1</sup> **Nortasun kolektiboa:** autopertzepzioa, «gu» batena, emakume feministen talde batena, plurala eta askotariko emakumeek osatua, zeinek proiektu amankomun hau partekatu eta kudeatu nahi baitute: Tolosaldeko Emakumeen Etxea/**Identidad colectiva:** autopercepción de un «nosotras», un grupo de mujeres feministas, diversas y plurales, que quieren compartir y gestionar este proyecto común: la Casa de las Mujeres de Tolosaldea.



TOLOSAKO  
UDALA

Zertarako nahi dugu Tolosaldeko Emakumeen Etxea? Eskualdeko emakume guztiei espazio seguru, hurbil eta konfiantzazkoa eskaintzeko.

Emakumeen ahalduntze kolektibo eta indibidual iraunkorrerako (Jabetze Eskola).

Sareak eraikitzeko emakumeen aniztasuna kontuan hartuta, eskualdeko emakume guztien ahaleginak batzeko eta Mugimendu Feminista sendotzeko.

Ikuspegi integral batetik lan egiteko eta baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzeko, indarkeria matxista gure bizitzetatik desagerrarazteko, ahalduntzearen eta gizarte-eraldaketaren ikuspegitik.

Gizartearen esparru guztietan politikoki eragiteko (behatoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza-lanak, eta abar.

Etxearen printzipioetako bat da, besteak beste, honelakoa izatea: plurala, irekia, multikulturala, feminista, horizontala, partaidetzazkoa, eskualdeko errealitatean eragina izango duena, bizia, aktiboa, hezitzailea, lotsagabea, zirikatzailea, belaunaldien artekoa, sortzailea, euskalduna, ekologikoki jasangarria, laikoa, irisgarria, harrera eta sarbide errazekoa, eta komunitate-jabetza publikokoa.

Etxearen erabiltzaileak 16 urtetik gorako emakumeak izango dira. Jarduerak oro har emakumeei zuzenduta egongo dira, eta Etxea erabiltzen duten emakumeek hala erabakitzen dutenean, jarduera mistoak antolatuko dira.

Etxearen kudeaketa erakundeek (hura babesten eta finantzatzen duten Tolosaldeko udalak) eta Mugimendu Feministak eta Tolosaldeko emakume taldeek partekatuko dute.

Etxea ezagutarazteko, sareak eraikitzeko eta

¿Para qué queremos una Casa de las Mujeres de Tolosaldea? Para ofrecer un espacio seguro, cercano y de confianza a todas las mujeres de la comarca.

Para el empoderamiento colectivo e individual permanente de las mujeres (Escuela de Empoderamiento).

Para construir redes teniendo en cuenta la diversidad de las mujeres, para aunar esfuerzos de todas las mujeres de la comarca y consolidar el Movimiento Feminista.

Para trabajar desde una visión integral y proporcionar recursos públicos comunitarios e instrumentos colectivos para erradicar la violencia machista de nuestras vidas, desde una perspectiva empoderante y de transformación social

Para influir políticamente en todos los ámbitos de la sociedad (observatorio crítico): sociedades gastronómicas, centros escolares, fiestas, empleo, tareas de cuidados, etc.

La Casa tiene como principios, entre otros, que sea: plural, abierta, multicultural, feminista, horizontal, participativa, que incida en la realidad de la comarca, viva, activa, educadora, descarada, provocadora, intergeneracional, creativa, euskaldun, ecológicamente sostenible, laica, accesible, de fácil acogida y acceso, y de propiedad pública comunitaria.

Las usuarias de la Casa serán las mujeres mayores de 16 años. Las actividades serán dirigidas a las mujeres en general, y cuando las mujeres usuarias de la Casa así lo decidan se organizarán actividades mixtas.

La gestión de la Casa será compartida entre las instituciones (ayuntamientos de Tolosaldea que lo apoyan y financian) y el Movimiento Feminista y los grupos de mujeres de la Tolosaldea.

Las actividades para dar a conocer la Casa,



TOLOSAKO  
UDALA

berdintasuna eta kontzientzia feminista sustatzeko jarduerak, besteak beste, honako hauek izango dira: emakumeen etxeen eta jabetze eskolen arteko topaketak, tailerrak, ikastaroak, mahai-inguruak, jardunaldiak, monografikoak; batzarrak, eztabaidarako gune kritikoak, hausnarketak; jarduera ludikoak, kulturalak, kirolekoak eta solidarioak.

Zerbitzuen artean: aholkularitza psikologikoa, juridikoa eta laborala. Harreman afektibo-sexualei buruzko aholkularitza.

#### **4.- LOGOTIPOAREN BALDINTZA TEKNIKOAK ETA EDUKIA**

Lehiaketan parte hartzeko, logotipoaz gain, beste dokumentu batzuk ere aurkeztu beharko dira, hala nola: logotipoari buruzko memoria, nortasun kolektiboaren oinarritzko eskuliburua, eta logotipoa paperezko euskarietan, prentsa idatzian, argitalpenetan eta abarretan aplikatzeko adibideak.

Hauexek dira logotipoaren baldintza teknikoak eta gainerako edukiak:

**4.1.- Logotipoa:** nahitaez, honako legenda hau jaso behar du:

ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxea

**Logotipoaren bertsioak** (logotipoa koloretan, grisen eskalan, edo zuri-beltzean) eta haren aldaerak bektore-formatuan nahiz bits-mapa formatuan aurkeztuko dira, kode irekiko diseinu-programarekin manipulatu ahal izateko. Hori dela eta, ahal dela formatu estandarrak erabili behar dira (JPEG, SVG, eta abar).

**4.2.- Logotipoaren memoria:** jaso behar ditu, sortzailearen iritzian, obraren sorrera eta esanahia azaltzen edo ulertzen laguntzen duten elementu guztiak. Nortasun bisualaren oinarritzko elementuak, hau da, proposatutako

para construir redes y fomentar la igualdad y la conciencia feminista serán, entre otras, los encuentros entre casas de mujeres y entre las escuelas de empoderamiento; talleres, cursos, mesas redondas, jornadas, monográficos; asambleas, espacios críticos de debate, reflexiones; actividades lúdicas, culturales, deportivas y solidarias.

Entre los servicios: asesoramiento psicológico, jurídico y laboral. Asesoramiento sobre las relaciones afectivo-sexuales.

#### **4.- CONDICIONES TÉCNICAS DEL LOGOTIPO Y SU CONTENIDO**

Para participar en el concurso además del logotipo, se deberá presentar una serie de documentación como una memoria sobre el logotipo, manual básico de la imagen colectiva y ejemplos de aplicación del logotipo en soporte papel, prensa escrita, publicaciones, etc.

Estas son las condiciones técnicas del logotipo y resto de contenidos:

**4.1. Logotipo:** deberá contener obligatoriamente la siguiente leyenda:

ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

**Las diferentes versiones del logotipo** (logotipo en color, en escala de grises o blanco y negro) y sus variantes, se presentarán tanto en formato vectorial como de mapa de bits para permitir su manipulación con programas de diseño de código abierto, por lo cual se deberán utilizar preferentemente formatos estándares (JPEG, SVG, etc.).

**4.2. Memoria del logotipo:** deberá contener todos aquellos elementos que a juicio de la creadora expliquen o ayuden a comprender la creación y el significado de la obra. Elementos base de identidad visual, esto es, relación de



TOLOSAKO  
UDALA

logotipoaren tamainen erlazioa eta elementuen arteko egoera, koloreak eta grisen eskalako edo zuri-beltzeko bertsioa.

**4.3.- Nortasun kolektiboaren oinarrizko eskuliburua:** printzipioei eta helburuei lotuta egon behar du eta haiek transmititu ere egin behar ditu, eta kontuan hartu behar du Etxearen proiektuak zer publiko mota lortu nahi duen.

Eskuliburuan, logotipoaren eta garatzen den irudi bisualaren erabilera jaso beharko dira: tipografiak, marka-koloreak, iruditeria, tamainen egokitzapena... Markak bestelako markekin elkarbizitzan nola erabili behar den ere zehaztuko da. Logotipoaren diseinuak hainbat euskarritan funtzionatu behar du: paperean, eraikinaren fatxadan, eremu digitalean...

**4.4. Proposamenaren aplikazioaren adibideak.** Agiriak, bisita txartelak, kanpoko eta barruko oinarrizko seinaleak, sare sozialak, ikus-entzunezko kareetak, etab.

## 5.- LEHIAKETAN PARTE HARTZEA

Lehiaketan parte hartu nahi duten emakumeek honako dokumentu hauek erantsi beharko dituzte, eta aurreko atalean adierazitako baldintza teknikoak bete:

- Logotipoa.
- Logotipoaren memoria.
- Nortasun kolektiboaren oinarrizko eskuliburua.
- Adibideak, proposamena paperean aplikatzeko (eskutitzak, agiriak, gutun azalak, bisita txartelak), prentsa idatzian, esku orrietan, argitalpenetan eta oinarrizko kanpo- eta barne seinalizazioan.

Lanak posta elektronikoa honetan aurkeztuko dira: [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)  
Gainera, posta elektronikoa honako datu hauek erantsiko dira:

tamaños y situación entre elementos, colores y versión en escala de grises, o blanco y negro, del logotipo propuesto.

**4.3.- Manual básico de la identidad colectiva:** manual que deberá transmitir e ir unido a los principios, a los objetivos y teniendo en cuenta, al público objetivo que persigue el proyecto de la Casa.

El manual deberá incluir el uso del logotipo y de la imagen visual que se desarrolla: tipografías, colores de marca, imaginario, adaptación de tamaños... También se especificará el uso de las marcas en convivencia con otras marcas. El diseño del logotipo debe funcionar en diferentes soportes: papel, fachada del edificio, área digital...

**4.4. Ejemplos de aplicación de la propuesta** Documentos, tarjetas de visita, señalización básica exterior e interior, redes sociales, caretas audiovisuales, etc

## 5.- PARTICIPACIÓN EN EL CONCURSO

Las mujeres que deseen participar en el concurso, deberán de adjuntar los siguientes documentos, cumpliendo las condiciones técnicas indicadas en el apartado anterior:

- Logotipo.
- Memoria del logotipo.
- Manual básico de la imagen colectiva.
- Ejemplos de aplicación de la propuesta en papel (cartas, documentos, sobres, tarjetas de visita), en prensa escrita, en folletos, publicaciones y señalización básica exterior e interior, etc.

Los trabajos se presentarán en este correo electrónico: [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)  
Además, en el correo electrónico se adjuntarán los siguientes datos:



TOLOSAKO  
UDALA

- Parte hartzailearen datuak: parte hartzen duen emakumearen izen-abizenak edo ordezkatzeko izen-abizenak edo elkartearen edo emakume-taldearen izena. NANaren edo pasaportearen zenbakia. Egungo helbidea. Telefono zenbakia edo mugikorrarena eta posta elektronikoa.
- Datos de la participante: nombre y apellidos de la mujer participante o nombre de la asociación o grupo de mujeres al que representa. Número del DNI o pasaporte. Dirección actual. Número de teléfono o móvil y correo electrónico.

Berdintasun Sailak, lehiaketara lanak aurkeztu dituzten emakumeen datuen konfidentziaztasuna bermatzeko asmoz, posta elektronikotik proposamenak jaso eta lan bakoitzari zenbaki bat esleituko dio, ondoren epaimahaiak baloratu ditza.

Lehiaketan parte hartzen duten emakumeek gehienez ere 2 obra original aurkeztu ahal izango dituzte.

**Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da (30a barne).**

## 6.- SARIA

Lan bakarra sarituko da, 1.500,00 €-rekin.

## 7.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proposamen irabazlea aukeratzeko, kontuan hartuko dira, batetik, logotipoaren balio artistikoak eta sinbolikoak, eta, bestetik, irudikatze eta komunikatzeko duen gaitasuna.

Halaber, baloratuko da diseinua berritzailea eta identifikatzeko erraza izatea, eta, gainera, balio anitzekoa izatea eta hainbat euskarrirara egokitzeko gaitasuna izatea.

Epaimahaiak modu independentean jardungo du, eta aurreko irizpideen arabera erabakiko du proposamen irabazlea.

## 8.- EPAIMAHAIAREN OSAERA

El Área de Igualdad, con el objetivo de garantizar la confidencialidad de datos de las mujeres que presentan los trabajos al concurso, se encargará de recoger las propuestas del correo electrónico y adjudicar un número a cada trabajo para que posteriormente el jurado los valore.

Las mujeres que participen en el concurso podrán presentar un máximo de 2 obras originales.

**El plazo de presentación de trabajos finalizará el 30 de septiembre (inclusive).**

## 6.- PREMIO

Se premiará un único trabajo, con 1.500,00 €.

## 7.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

Los valores artísticos y simbólicos del logotipo, por un lado, y su capacidad de representación y comunicación, por otro, serán los aspectos que se tendrán en cuenta para elegir la propuesta ganadora.

Además, se valorará que el diseño sea innovador y fácil de identificar y que, además, sea polivalente y tenga la capacidad de adaptarse a diferentes soportes.

El jurado actuará de forma independiente y elegirá la propuesta ganadora de acuerdo con los criterios anteriores.

## 8.- COMPOSICIÓN EL JURADO



TOLOSAKO  
UDALA

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Emakume bat, Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeko Komunikazio Lantaldearen ordezkari gisa.
- Emakume bat, Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Emakume bat, Tolosako Udalaren ordezkari gisa.
- Emakume bat, Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeko Lantalde Politiko-Teknikoaren ordezkari gisa.
- Diseinu grafikoaren edo arte ederren arloko emakume profesional bat.

Lehiaketaren logotipo irabazlea aukeratzeko, epaimahaiak Tolosaldeko Emakumeen Etxea ondoen identifikatzen eta ordezkatzeko duen lana hartuko du kontuan, baita originaltasuna, argitasuna, sormena eta kalitate artistikoa ere.

Gainera, lehiaketa honen baldintza teknikoetan ezartzen den bezala, espazio desberdinetara (Etxearen aurrealdeko eta atzealdeko fatxadak) eta formatuetara egokitzeko aukera ere aztertuko du.

## 9.- JABETZA INTELEKTUALA

Irabazleak eta gainontzeko parte hartzaileek Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeari lagatzen dizkiote ustiapen eskubideak, berari bakarrik eta denbora mugarik gabe.

## 10.- OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartze hutsarekin lehiatzaileek adierazten dute oinarri hauek ezagutzen dituztela eta osoki onartzen

El jurado estará conformado por:

- Una mujer en representación del Grupo de Trabajo de Comunicación de la Casa de las Mujeres Andragora de Tolosaldea.
- Una mujer en representación del Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.
- Una mujer en representación del Ayuntamiento de Tolosa.
- Una mujer en representación del Grupo de Trabajo político-técnico de la Casa de las mujeres Andragora de Tolosaldea.
- Una profesional del ámbito del diseño gráfico o bellas artes.

Para seleccionar el logotipo ganador del concurso, el jurado tendrá en cuenta el trabajo que mejor identifique y represente a la Casa de las Mujeres de Tolosalea, así como la originalidad, la claridad, la creatividad y la calidad artística.

Además, analizará también la adaptabilidad a los diferentes espacios (fachada delantera y trasera de la Casa) y formatos en los que se pueda incluir, tal y como se establece en las condiciones técnicas de este concurso.

## 9.- PROPIEDAD INTELECTUAL

La ganadora y el resto de participantes cederán los derechos de explotación a la Casa de las Mujeres Andragora de Tolosaldea, de forma exclusiva y sin límite de tiempo.

## 10.- APROBACIÓN DE LAS BASES

Con solo participar en este concurso las concursantes manifestarán conocer y aceptar plenamente estas bases.



TOLOSAKO  
UDALA

dituztela.

### 11.- ARGIBIDEAK

[udala.tolosa.eus/tolosaldekoemakumeenetxea](http://udala.tolosa.eus/tolosaldekoemakumeenetxea)

Berdintasun Saila: [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)  
edo 943 67 03 83 telefonora 810-luzapena.

### 11.- INFORMACIÓN

[udala.tolosa.eus/tolosaldekoemakumeenetxea](http://udala.tolosa.eus/tolosaldekoemakumeenetxea)

Área de Igualdad: [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)  
y/o el teléfono 943 67 03 83. Extensión 810.

Tolosan, 2022ko ekainaren 8an